



## AUZOLANEAN DURANGOKO PASIÑOA TAULARATZEKO

Juan de Iciar elkarteko kideak buru-belarri dabilta entseguak egiten Durangoko Pasiñoa antzezteko. Edizio berezia dute aurtengoa, obra 30. aldiz plazaratuko dute eta. Apirilaren 16tik 18ra egingo dute obra, Santa Anan. / 2-3

Durangoko Pasiñoa antzezteaz arduratuko diren kideetarikoz batzuk, astelohenerako entseguan.

## Kuir Eztandak 'Ekuirnokzioa' egingo du lurretan, LGTB kideak sartzeko

Zapatuan, hausnarketa eta jaia batuko dituzte Abadetxean / 5



"Euskaraldiak hausnarketa sozial erraldoia planteatuko du euskararen biziberritzerako" / 4

Energiaren kontsumoa eraldatzeko plana sortu dute Elorrion: Daigun / 6



ELA gaixotasuna gizarteratzeko hainbat ekimen, Otxandion / 20

Bisita gidatua zapatuan, Mikel Lertxundiren 'Formatik haratago' erakusketa ezagutzeko / 17



Durangoko Pasiñoako hainbat kide, astelehenero entseguan.

**E. Herrera / A. Maldonado** DURANGO  
Astelehen iluntzea da eta hotz egiten du Santa Anan. Baina hori ez da oztopo bat Juan de Iciar elkarteko lagun eta Durangoko Pasiñoa osatzen duten familiako kideentzat. Martxoan kaleko entseguekin hasi dira, eta eguraldiak eta erlojuak larregi lagundu ez arren, dozena bi lagun gogotsu batu dira arkupearen bueltan. Gaurkoan, Herodesen balkoiaren eszenatik hasiko dute entsegua. "Hemen entseatzen dugu beti, Santa Anan. Berdin du zer eguraldi egiten duen", azaldu du Maite Gonzalezek. Hamaika bat urte daramatza Pasiñoan parte hartzen; etxetik dator kio zaletasuna, amarengandik, eta urteetan paper desberdinak interpretatu ditu. "Herodesen neskamearena egin dut, Cantaroren neskamearena ere bai, eta baita Juanarena ere", gogoratu du. Alboan duen Itsasne Larrinagak ere urteak daramatza Aste Santuko antzezlanen parte hartzen; lagun bitartez sartu zen bera, kuadrillako batek parte hartu ostean batu ziren bera, bere neba eta beste lagun bat. "Pentsa, nik entseatzen nuen bitartean, ama tabernan zegoen, baina hurrengo urtean bera ere animatu zen parte hartzera, eta gaur egun juntan dago", argitu du. Hainbat urtean

# "Belaunaldi aldaketa betean heldu gara 30. urteurrenera"

Apirilaren 16an, 17an, eta 18an egingo dituzte Durangoko Pasiñoaren 30. urteurreneko emanaldiak; edizioa aurrera ateratzeko zailtasunak izan arren, bermatuta dute gutxieneko parte hartzaile kopurua, eta parte hartzeko sasoz dabilzala gogoratu diete durangarrei

**"GUTXIENEO PARTE HARTZEA BERMATUTA DUGU; HALA ERE, GEHIAGO ETORTZEA GURA DUGU"**

paper desberdinak antzestu ditu, eta aurtengoan Herodesen neskamearena egingo du, orain artean egin duen garrantzitsuenak. "Eta Pasiñoa aurrera eramateko beharrezkoa balitz, bi ere egingo nituzke", gaineratu du. Hain zuzen ere, aurtengo ediziorako ez dute lan erraza izan paperak banatze-

**"HEMEN ENTSEATZEN DUGU BETI, SANTA ANAN; BERDIN DU ZER EGURALDI EGITEN DUEN"**

ko. 1993an berreskuratu eta gero (1961. eta 1965. urteen bitartean ere antzestu zen), "arriskuan" ikusi dute ekimenaren edizio hau. "Urte hasieran publiko egin genuen geure larritasuna, jendea behar genuela ikusita. Martxoan hasi ditugu entseguak, eta ez dugu igarri jende berria etorri denik. Betikoak etorri dira. Agian, datak gerturatu ahala jende gehiago animatuko da, baina ez dakigu", esan dute. Gutxieneko kopurua beteta dute, baina oraindino jende gehiagori joateko deia egin diete biek. "Santa Anan gortinak ipintzen ditugu Pasiñoaren egunen bueltan, eta beti esaten dugu Pasiño barruan beste Pasiño bat egotea ahalbidetzen duela horrek", nabarmendu dute. Belaunaldi aldaketa betean heldu da 30. urteurrenaren ospakizuna, eta, zailtasun dezente izan arren, ilusioz dabilzala oztopo horiek gainditzen. "Beltz ikusten genuen, baina 30 urte egitearen ilusio horrek indarra eman digu aurrera egin eta jende gehiago lortzeko", nabarmendu du Gonzalezek. "Antzezlanen, gazteok hartu ditugu paperik garrantzitsuenak, eta bestelako kontuen ardura ere hartzen hasi gara; sare sozialak kudeatzen ditugu, eta komunikabideekin hartu-emanetan jarri gara, besteak beste", esan du.



**"Asterik aste hobetzen gabiltza"**

**ITSASNE LARRINAGA**  
12 URTE PASIÑOAN

**Gogotsu ekin diezu entseguet?**

Hilabete daramagu irakurketekin. Orain, kaleko entsegu normalak egiten gabiltza, eta asterik aste hobetzen gabiltza.

**Zer etorkizun ikusten diozu Pasiñoari?**

Ez dakit zer esan datorren urtekoari buruz, baina 30.a egin beharra genuen. Ilusioz gaude.



**"Abenduan beltz ikusten nuen, orain ilusioz"**

**MAITE GONZALEZ**  
11 URTE PASIOAN

**Zer moduz daramatzazu entseguak?**

Ondo, aurten Cantaroren neskearena egingo dut, orain urte bi lez. Oraindino paperekin entseatzeko gabiltza, baina asterik aste fintzen gabiltza.

**Urteurren berezia da.**

Beltz ikusten genuen abenduan, baina orain ilusioz.



**"Paperak ikasten ari gara oraindino; oso ondo gabiltza"**

**DANEL CARRIZOSA**  
HIRU URTE PASIOAN

**Zelan daramatzazu entseguak?**

Ondo, gogotsu hasi gara kaleko entseguetekin. Oraindino ere paperak eskuetan entseatzeko gabiltza, baina martxa onean goaz.

**Zein rol jokatuko duzu aurten?**

Hau nire hirugarren urtea da, eta herritarrarena egin eta gero soldadurena egingo dut orain.

**Apirilaren 16an, 17an eta 18an egingo dute Durangoko Pasiñoa**

Markel Gamboak egingo du berriro Jesusen papera; parte hartzeko deia egin diete durangarrei



lazo argazkia. NEREKOPI

**A. M. DURANGO**

Belaunaldi aldaketa betean etorri da Durangoko Pasiñoaren 30. urteurrena, eta antzezlaneko paperik garrantzitsuenak gazteen esku daude aurten. "Ikasurte hasieran, zuzendaririk ere ez geneukan. Nahikoa lan izan dugu paperak eta ardurak banatzen", azaldu du Itsasne Larrinagak. Aurten ere Markel Gamboak egingo du Jesusen

papera; Kaifasena Aitor San Antonek egingo du, Poncio Pilatorena Fernan Atuchak, eta Herodesena Mikel Echartek; Josune Goikoetxea eta Susana Alarcon arduratzen ari dira obra zuzentzeaz. "Ezin dut imajinatu Pasiñorik bako Durango bat, eta ez dut imajinatu gura, gainera", esan du Larrinagak.

Gutxieneko parte hartzaile kopurua ziurtatuta izan arren, parte hartzera joateko deia egin gura izan diete durangarrei. "Familia moduko bat gara, eta hain ondo pasatzen dugunez, hurrengo urtean ere egin gura izaten dugu", esan dute.



Ikusi bideoa


**MGEP**

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARZMENDIARRIETA, KOOR. E.

**TALENTU PROFESIONALA**

eskolatik - industriara

**"Ikasgaiek ikuspegi teoriko eta praktikoak jorratzen dituzte aldi berean"**



**Ainara Arco**

**Sare eta Informazio Sistemen Administrazioa (ASIR)**  
Goi Mallako Heziketa Zikloa (GMHZ)

**Fabrikazio mekanikoko produktzioaren programazio zikloko bigarren urtean diharduz. Zeintzuk izan ziren MGEP aukeratzeko arrazoiak?**

Aurretik egiten nuen lanak ez ninduen batera motibatzen eta hori izan zen ziklo hau ikasten hasteko arrazoi nagusia, lanbidez aldatu nahi nuelako. Bestalde, produktzio industrialak beti sortu izan dit jakin-mina eta gai honekin zerikusia zuten ikasketak egiteko gogoia nuen. Eskolan ibiltako lagun batzuek gomendatu zidaten MGEP formakuntza zentro bezala aukeratzeko. Nire formakuntzarako beharrezko diren instalazio industrial egokiak ditu eta oso harreran ona inguruko enpreekin, eta horiek ikasketak DUAL formatuan egiteko aukera eskaintzen zidan.

**Zer inuditu zaldiztu landutako ikasgaiek? Zailak izan al dira?**

Ikasgaiek ikuspegi teoriko eta praktikoak jorratzen dituzte aldi berean, eta horiek asko laguntzen du gauzak ondo ulertzen.

Hasieran kostu egin zitzaidan martxa hartzea, niretzat gai guztiak berriak zirelako. Baina eguneroko lanak eta irakasleek eskaini didaten arretak asko lagundu didate eta kurtsua aurrera eramanean ahal izan dut arazorik gabe. Erroretan oinarritutako ikasketak eredu ere oso balagarria inuditu zait. Bizitza errealean

aurkitu ahal izango ditudan egoera desberdinak ikusteko aukera eman dit, eta horiek asko laguntzen du gauzak ondo ulertu eta ikasketak aplikazio errealean bat antzematen.

**Notakoa izan da irakasle eta beste taldekideekin izandako harremana?**

Irakasle taldearekin izan dudun harremana oso ona izan da. Behar izan dugunean hori egon dira, guri laguntzeko prest, esperientzia handia duen taldea da. Taldekideen kasuan, adin desberdintasuna dela eta, hasieran, berekin izango nuen harremana zailagoa izango zela uste nuen, baina, egia esan, ez da horrela izan, eta harreman ona izan dut denekin, talde ona osatu dugu.

**Zikloan zehar ikasitako eduki teoriko eta praktikoei erabilerarik ateratzeko gaitasuna izango duzula pentsatzen al duzu?**

Bai, noski, orainbe bertan nire DUAL aurreratu egiten ari naiz Neoprec enpresan, eta klasean ikusitako gauza asko aplikatzen ari naiz nire eguneroko lanean. Nahiz eta enpresa bakoitzak bere egiteko modu partikularak dituen, zenbait ezagutza orokor aurretik izan ez banitu, askoz zailagoa egingo litzaidake lanpostu desberdinetara egokitzea.

**Berez, ikasketen eta enpresa esparruan eginko praktiken konbinazioa aberasgarria egin zaitzu.**

Bai, ikasketak eta enpresa esparruan izanaren arazoetako bat horixe izan da hain zuzen, ikasketak eta enpresan eginko praktiken konbinatzeko aukera, eta ez daukat hartutako erabakiaz damutzeko inongo arazoirik. Neoprec-en orainbe bertan, lanpostu desberdinetan dihardut: Kalitatea, Rebaba, Tool Room, FMS... Lanpostu hauetan lan egiteko modu desberdinak ikasten ari naiz eta hori oso esperientzia aberasgarria da.

**Zer plan duzu etorkizunari begira?**

Etorkizunean metal esparruan lan egiten jarraitzea gustatuko litzaidake, nire garapen profesionala aurrera eramanez. Nire ezagutza eta esperientzia enpresari eskaintzeko aukera izatea.

**ATE IREKIAK: Apirilak 5 11:00**

**Eman izena!**

MGEP: 664 298 683 ó 664 298 704



# "Euskaraldia potentzialitate handiko artefaktua da"

**KIKE AMONARRIZ** SOZIOLINGUISTA EUSKALTZALEA

Durangoko Euskaraldia gonbidatuta, Kike Amonarriz soziolinguista euskaltzaleak euskararen erabilera zabaltzeko gakoak aztertuko ditu datorren eguaztenean



Kike Amonarriz.

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Soziolinguista euskaltzale eza-gunak Arte eta Historia museoan emango du berbaldia, hilaren 26an, 18:30ean.

**Badator Euskaraldia eta zu zu Durangon izango zaitugu euskararen erabilerrari buruzko hausnarketak josten.**

Euskaraldia bera gaindituko duen Euskaraldia antolatzeke proposamena. Gutxi gorabehera, proposamen hori eramango dut Durangoko berbaldira. Eta zer esan nahi duen horrek? Ba, batetik, Euskaraldiko hamaika egun horiek ahalik eta eraginkorrenak eta jendetsuenak izan daitezzen saiatu behar dugula. Bestetik, epe ertainerako ikuspegia landu behar dugula, hau da, Euskaraldia sortuko duen energia soziala hurrengo hileetan eta urteetan egonkortzeko mekanismoei buruz hitz egingo dugu. Azkenik, zabalitze ikuspegia landuko dugu; Euskaraldia normalean iristea zailagoa den eremuetara eramateko tresnak aztertuko ditugu.

**Zelan ulertu behar dugu Euskaraldia euskararen zabalkundeantzat jotzen duen garrantzia?**

Horrelako egitasmoek garrantzi handia dute. Izan ere, euskara

agenda informatiboaren, politikoaren eta sozialaren erdigunean sartzen dute, eta hori ez da beti erraza izaten. Kontuan hartu Euskaraldia dela Euskal Herri osoan garatzen den egitasmo bakarrenetakoa, Korrikarekin eta Bertsolari Txapelketa Nagusiarekin batera. Mugimendu euskaltzalea indartzen eta zabaltzen du, eta egitasmoak atek zabaltzen dizkie euskaratik urrutia daudenei. Baina, batez ere, hausnarketa sozial erraldoia da Euskaraldia planteatzen duena, euskararen biziberritzerako giltzarria den faktore bat lantzen duelako: erabilera. Norbanakoak, entitateak eta erakunde publikoak interpelatzen ditu, eta gaur egun egiten dugun baino gehiago egin dezakegula agerian utzi.

**Durangoko euskararen erabilerrari buruzko azken datuak 2017koak dira. Urte hartan, euskararen kale erabilera % 22,7koa zen.**

Interesgarria litzateke datu hori berritzea. Esango nuke erabilerraren inguruko datu gaurkotuak izatea ezinbestekoa dela egoeraren eta etorkizunaren analisi errealistak egiteko. Pertzepzioek traizionatu egingo gaituzte-eta bestela. Edozelan ere, % 20 hori

abiapuntu sendoa da, jendea euskaraz egiteko prest dagoela diosku, eta non aurreratu ere badugula adierazten du. Euskaraldia potentzial horiek guztiak aktibatu nahi ditu, hain zuzen ere. Bilkura baten argazkia ikusgai egitea edo ekitaldiren bate-na aztertzea erraza da, baina bi pertsonen arteko hizkuntza-ohitura aldaketa ikusgai egitea ez da hain erraza. Hori sentitu egin behar da, eta interpelazio hori da behar duguna. Ahalegina egin behar dugu Euskaraldiko txapak ahalik eta gehien ikusarazten. Izan ere, txapen ugartasunak euskara sustatzearen alde jende asko dagoela irudikatzen du. Gainera, euskara erabiltzeko aukerak uste baino gehiago direla ere adierazten dute. Horrenbestez, txapen ugartasun masiboa behar dugu.

**Hizkuntza ohiturak eraldatzeko borroka konstantean gabiltza. Zergaitik kostatzen zaigu hainbeste ohiturak aldatzea?**

Inertziak aldatzea ez delako erraza izaten. Euskaraldia bera planteatu zutenek, tailerrak dinamizatu zituztenek, askotan aipatu izan dute honelakoak behar direla ohitura bat aldatzeko: baldintzak sortzea, kontzientzia, denbora, egoera berrira ohitzea... Euskaraldia, hain zuzen ere, baldintza horiek betetzeko oinarriak jarri nahi ditu. Zenbat eta txapa gehiago erabili, orduan eta errazagoa egingo zaio bidea euskarara hurbildu nahi duenari. Eta erdaraz natural ariztetik euskaraz natural egitera pasatu gura duenak prozesua egin beharko du. Egoera ezohikoak sortuko zaizkio beharbada, baina horiek guztiak igaro behar dira. Edozelan ere, argi izan behar dugu Euskaraldia ez dela euskararen gaitz guztien sendabidea. Alabaina, bultzada handia ekar diezaike. Potentzialitate handia duen artefaktua da, eta ezinbestekoa zaigu horretaz baliatzea.



Ikasturte hasierako ekitaldi bat Maristak ikastetxean.

## Lehenago eta oraingo ikasleen topaketa Maristak ikastetxean

Zapatu honetan, ikastetxeko ikasle ohi adinekoenen eta gaur egungo ikasleen arteko topaketa egingo dute

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Zapatu honetan, Durangoko Maristak ikastetxeak beste ekitaldi bat egingo du bere 120. urteurrena ospatzeko. Lehenago eta oraingo ikasleak batzeko topaketa egingo dute, eta ikastetxetik igarotako ikasle ohi adinekoenak batuko dituzte bertan. Zentroko iturriek azaldu dutenez, "aitita eta amama adinekoenak topatzeko deialdia" egin zuten orain hilabete batzuk, eta bilaketa horrek irau bitartean, hainbat familia joan da ikastetxera. Orain, hori guzti hori ospatzeko, jendaurreko

ekitaldi publikoa egingo dute zapatuan, ikasle beterranoen eta gaur egungo ikasleen arteko elkarrizketak plazaratuta.

Ekitaldia Elixabete Etxanobe Bizkaiko ahaldun nagusiaren eta Mireia Elkoroiribe Durangoko alkatearen bisitaz egingo dute. 11:00etatik aurrera, hitz hartzeak, gaur egungo ikasleen eta ikaslerik beterranoen arteko elkarrizketak, sari banaketa, argazki saioak eta luntxa izango dituzte. Azkenik, gura duenak ikastetxeko instalazioak ezagutzeko aukera izango du.

## Labur Esanda lehiaketaren edizio berria, apirilean

**E.H.** DURANGO

Berbarok Labur Esanda film laburren lehiaketako edizio berria antolatuko du apirilaren 4rako eta 5erako. Aurtengoa bosgarren edizioa izango da eta nobedade bat izango du. 20 urtetik beherako partaideentzat saria egongo da jokoan, lehenengoz. Parte hartzaileek apirilaren 4an 16:00etan egon egon beharko dute Plateruean. Orduan jasoko dituzte filma ekoiztu ahal izateko argibideak. Ondoren, 24 ordu izango dituzte pelikula egin eta entregatzeko. Zapatuan, apirilak 5, 16:00etan entregatu beharko dituzte. Ondoren, 22:00etan film guztien eman-kizuna egingo dute. Orotara, 700 euro banatuko dituzte saritan.

## Durangoko Herritar Txartelari buruzko kontsulta, martxan

**E.H.** DURANGO

Durangoko Udalak kontsulta publikoa ipini du martxan, herritarrek etorkizuneko Herritar Txartelari buruz duten iritzia jasotzeko. Txartela formatu fisikoan zein digitalean egongo da eskuragarri, eta hainbat udal instalazio erabiltzeko aukera emango du, hala nola kiroldegia, liburutegia eta adinekoentzako taxi-zerbitzua. Horrez gainera, hondakin organikoek edukiontzia zabaltzeko ere balioko du.

Kontsultan parte hartzeko aukera martxoaren 31ra arte egongo da zabalik. Interesdunek [partehartu.durango.eus](http://partehartu.durango.eus) atarira jo dezakete.

## Udarok udaleku artistikoak eskainiko ditu, lehenengoz

3tik 14 urtera arteko gazte durangarren udalekuan izena emateko epea martxoaren 24an zabalduko dute

**Aritz Maldonado** DURANGO

Durangoko Udaro udaleku programetan izena emateko epea martxoaren 24an zabalduko dute. Egitasmoa 3tik 14 urtera bitarteko haur eta nerabeei zuzenduta dago, eta sei programaz osatuta egongo da. Nobedade legez, irailean udaleku artistikoak eskainiko dituzte, lehenengoz. Udaleku artistikoak gurasoen eskakizun bati erantzuteko antolatuko dituzte, Jessica Ruiz Gazteria zinegotziaren esanetan. "Irailean, lanera itzulitakoan, gurasoek gatz dute lana eta familia-bizitza kontziliatzea, eta horretan konpibide izatea gura du proposamenak", azaldu du. Horrez gainera, udaleku artistikoekin udalerriko haur eta gazteei ikaskuntza, bizikidetzeta eta sormena lantzen lagunduko dietela esan du Ruizek. Aurreikuspenen arabera, udaleku artistikoen prezioa



Umeak olgetan. HERRIA ELKARTEA

60 bat eurokoa izango da. Irailean 1etik 5era egingo dituzte udalekuok. Nobedadeez gainera, Txiki Txokoa (3-5 urte), Hiri Kanpamentua (6-10), Abentura (11-14) eta Ingeleseiz Olgetan (7-14) programak eskainiko dituzte, baita kirol udalekuak ere.

## Sagardo Eguna ospatuko dute Garain, apirilaren 5ean

**E.H. GARAI**

Trumoitte Kultur Elkarteko kideak Sagardo Eguna antolatzen dabilta apirilaren 5erako. Datzen egunetan zehaztuko dituzte ekitaldiko ezaugarri guztiak, baina, aurreratu dutenez, hainbat sagardo mota dastatzeko aukera egongo da. Ospakizuna plazan egingo dute; eguraldiak laguntzen ez badu, frontoian.



Sagardo Egunaren edizio bat. TRUMOITTE



Durangoko Kuir Eztanda kolektiboko kideak, iazko Ekainaren 28ko aldarrikapenetan, Abadiñon. KUIR EZTANDA

## 'Ekuirnokzioa' zapatuan, LGTB kideak saretzeko

Udaberrian sartzeagaz batera, Durangaldeko LGTB komunitateko kideek 'Ekuirnokzioa' ospatuko dute zapatuan. Iurretako Abadetxean batuko dira, elkar ezagutzeta eta hartu-emanak bultzatzeko. Hausnarketa eta jaia batuko dituzte

**Ekaitz Herrera** DURANGALDEA

Karropoteo jendetsu eta ikusgarriak egin izan dituzte Durangoko jaietan, eta aldarrikapenen lehenengo lerroan egon izan dira beti, egoerak halantxik eskatu izan duenean. Alabaina, oraingo honetan, Durangoko Kuir Eztanda kolektiboko kideek beste egitasmo bat antolatu dute; udaberrian sartzeagaz batera, *Ekuirnokzioa* ospatuko dute Iurretako Abadetxean. "Azken urteotan taldea indartzen ibili gara, eta iruditzen zaigu halako identitate bat saretzea lortu dugula. Orain, jaia bakarrik barik, hausnarketa ere landuko dugu", adierazi dute Usue Egiak eta Josu Belarrek, Kuir Eztandako kideek.

Hori dela eta, zapatu eguerditik aurrera herrietako bizipen kuirrei buruzko hausnarketak partekatuko dituzte mahai-inguru batean. "Elkar saretzeko eta bizipenak partekatzeko ekintza izango da", azaldu du Egiak. "Elkar saretzeko eta baita elkar ezagutzeko ere", gaineratu du Belarrek, "izan ere, gure herriko eta eskualdeko LGTB kide askok ez dugu elkar ezagutzen. Hori lantzea, beraz, esanguratsua da jada. Geure buruari esan genion: egingo dugu jai bat elkar ezagutzeko?". Esan eta egin. Mahai-inguruan Arrasateko Morbor elkarteko kideek, Uribe Kostako Ukatu Disidentziak eta etxe-koek, Kuir Eztandakoek, parte hartuko dute. "Askotan, LGTB

komunitateko kideok hirira jo behar izan dugu erreferentzia eta askapen bila, baina guk gure herrietan zeozer sortu gura dugu, pozik bizi gara-eta hemen. Horrenbestez, gure erreferentziak sortzeko eta elkar ezagutzeko eguna izango da zapatukoa", azaldu du Egiak.

Ekuirnokzioa 12:00etan hasiko da, harrera ekitaldiagaz. 12:30ean mahai-ingurua egingo dute herrietako bizipenak partekatzeko. 14:30ean bazkari beganoa izango dute, eta 16:30ean fanzine tailerra. Arratsaldean eta gauean jaia egingo dute. 19:00etan poteoa izango dute, eta 21:30ean drag emanaldiak: *Ay Dragmela!* eta *Warras Bizarras*.

**b**  
ArmeriaEskola<sup>x</sup>



Zatoz ate irekietara!

**MARTXOAK 26**  
**MAIATZAK 6**



**AUKERARIK**  
**ONENA,**  
**ETORKIZUNA**  
**DUENA**

# Daigun 2025-2050 plana aurkeztu dute Elorrion

Elorrioko energia trantsizioa planifikatzea helburu duen Daigun egitasmoa aurkeztu dute; 2050. urtera begira energia kontsumoa ahalik eta gehien murriztea eta kontsumitzen den energia horrek jatorri berriztagarria izatea gura dute, besteak beste



Planaren zirriborroaz gainera, Batzorde Sustatzailea ere aurkeztu dute.

## Zornotzako San Migel kaleko errepidea itxita, urte berrira arte

Eremua konpondu bitartean, Zornotzako Udalak San Migel kalea ixtea agindu du Jauregizahar parean



San Martin errekaostaren ganga, Jauregizaharren, errepide azpian. ZORNOTZAKO UDALA

**Ekaitz Herrera** ZORNOTZA Zornotzako Udalak San Migel kaleko zati bat zarratu du, Jauregizahar auzoaren parean, errepidearen azpiko San Martin errekaostoko ganga hondoratzeko arriskua dela eta. Errepideko tunela eta galtzada konpondu bitartean itxi dute kalea, ezbeharrak saihesteko. Zornotzako Udalaren esanetan, errepidea urtea amaitu arte egongo da itxita, gutxienez. Erabaki horrek eragina izango du ibilgailuen zirkulazioan eta autobusen geralekuetan. Hain zuzen ere, ibilgailuek Nafarroa kaletik egin beharko dituzte herrigunerako sartu-irtenak aurrerantzean. Kalea itxita egon arren, baina, ibilgailuak Jauregizahar, Gane, Andrandi eta Legarrobi auzoetara sartu ahal izango dira.

**Aritz Maldonado** ELORRIO

2050. urtera bitarterako energia trantsizioa planifikatzeko helburua duen Daigun proiektua aurkeztu dute Elorrion aste honetan. Elorrioko Udalak eta Argiñola energia berriztagarrien komunitateak heldu diote erronkari, Siadecoren aholkularitzagaz. Abiapuntu legez zirriborro bat landu dute, eta 2050a epe muga modura ipinita, honako helburu hauek finkatu dituzte: gaur egungo energia kontsumoa ahalik eta gehien murriztea, eta kontsumitzen den energia jatorri berriztagarrikoa, tokian tokikoa eta modu iraunkorrean ekoizitakoa izatea. "Energia eredu alternatiboa lortu gura dugu, ingurumena errespetatuko duena eta ekonomikoki bideragarria eta sozialki ekitatiboa izango dena. Nolanahi ere, eredu horren inguruko ikuspegia partekatua izatea gura dugu", azaldu dute proiektuaren bultzatzaileek egunean egindako prentsaurrekoan. Horretarako, prozesuaren gobernantzarako lehenengo urrats lez, Batzorde Sustatzailea eratu dute. "Elorrioko eragile instituzional, ekonomiko eta sozialak daude bertan ordezkatuta, ezaugarri ezberdinak herritar norbanakoez gainera. Deliberazio proiektuan landuko diren edukiak eta prozesua aurrera eramateko metodologiak zehaztuko dira talde horretan", aurreratu dute prentsaurrekoan.

**Herritarren inkesta**

Abiapuntu diagnostikoa osatzeko, ausaz aukeraturiko 400 herritarrek inkesta bati erantzun beharko diote. Aste honetan bertan, udalak informazio gutunak bidali dizkie herritar horiei. Talde sustatzaileak herriko eragileen parte hartzea ere bilatzen du, ikuspegi osoago bat lortzeko. "Gizarte eragileen, eragile sozioekonomikoen, herritar norbanakoen zein beste erakunde publikoen parte hartzea bultzatu gura dugu", argitu dute.

Bestalde, *Zinema etorkizunaz: energia berriztagarriak, zer bestela?* zikloak aurrera jarraitzen du. Hurrengo emanaldiak martxoaren 28an, apirilaren 4an eta maiatzaren 9an izango dira, 19:30ean, Iturri kultur etxean. Doakoak dira. Ziklo hau ere Argiñolak eta Elorrioko Udalak antolatu dute.

**ENERGIA EREDU ALTERNATIBOA LORTU GURA DUTE, EKONOMIKOKI BIDERAGARRIA**

**400 ELORRIAR GALDEKATUKO DITUZTE HASIERAKO DIAGNOSTIKOA OSATZEKO**

## Berrizen, Abeletxe inguruko hobetze lanak amaitu dituzte

Abeletxe inguruetakoko irisgarritasun lanak amaitu dituztela jakinarazi du Berrizko Udalak

**A. M. BERRIZ**

Abeletxe ingurua hobetzeko lanak amaitu dituela adierazi du Berrizko Udalak oraintsu. Hain zuzen ere, eskudelak dituzten barandak ipini dituzte oinezkoen joan-etorria errazteko, eta, batez ere, eskailerak dituzten zatietan irisgarritasuna hobetzeko. Berrizko Udalak 10.000 euro erabili ditu lan horietarako. Bestalde, Berrizko beste gune batzuetan martxan diren lanen berri ere eman du udalak, ohar baten bitartez. Murguito, Okango eta Andikoa auzoetako hain-

bat eremutan landa-bideak konpontzen dabilta. "Besteak beste, zorua berriztuko dugu, Loitzate eta Murguitoamandarro baserrietarako sarbideetan hormigoia armatuzko lauza bidezko zoladura berriztuta", azaldu du udalak; Okangoko errepide nagusian, eta Agirre eta Zugatza baserrietara sartzeko bideetan ere egin dituzte lanak. Otsailean hasi zituzten konpontze-lanak, eta lau hilabeteko epean amaitzea aurreikusten dute. Udalak ia 240.000 euro erabiliko ditu lan horietarako.

# OSASUN GIDA

**Podologia**  
PSE: 214/06



**Adinara Urreta Jainaga**

OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA  
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA  
NEURRIIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA  
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

**Odontologia**  
PSE: 26/22



**viteri**  
HORTZ-KLINIKA  
Konfiantzarikoa Hortz Klinika Durango

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,  
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA  
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR  
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordutegia:  
Astelohenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00  
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30  
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia  
www.clinicadentalviteri.com

**Odontologia**  
PSE: 145/13



**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarría

ODONTOLOGIA OROKORRA -  
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA -  
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA  
IKUSEZINA - ODONTOPIEDIATRIA - PADI -  
HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO  
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -  
48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
uecdental@gmail.com

**Fisioterapia**  
PSE: 119/13



**ZAINDUZ**  
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.  
Solo pertsonalizatuak dira,  
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma  
MATIENA-ABADIÑO  
944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**  
PSE: 57/16



**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com  
946 550 049 - 695 784 963

**Proktologia**  
PSE: 16/22



**próktós.clinic**

Uzki eta zoru-pelbikoko  
patologien tratamendua

Mikeldi Kalea, 13, 48200  
Durango, Bizkaia  
(MAM Zentroa)  
674 322 360 / 747 474 699  
info@proktos.clinic

**Naturopatia eta Homeopatia**

*Aurora Julià*

HOMEOPATIA • NATUROPATIA  
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:  
946 204 218

Txanporta Plaza, behea - Abadiño  
www.aurorahomeopata.eus



**Psikologia**

**gure**  
Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen  
diagnostikoa eta esku-hartzea,  
diskalkulian adituak.

613 038 933  
Andra Mari, 16 1D Durango

**Psikologia**

**gure**  
Psikologia

Helduak-nerabeak-haurrak

- Zure buruan konfiantza sendotzeko
- Estresa kudeatzeko
- Zure harremanak hobetzeko

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62  
Andra Mari, 16 1D Durango

**Optometria**  
PSE: 162/13



**keinu**  
OPTOMETRIA ZENTROA

• JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA  
• IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO  
ERREFLEKUIAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA  
• SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL  
IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK  
• ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099  
www.keinuoptometriazentroa.com

# Hitzarmena, hamaiketako osasungarriak sendotzeko

Atxondoko Udalak eta gurasoen elkarteak hitzarmena sinatu dute eskolan hamaiketako osasungarriak ematen jarraitzeko. Horrela, elikadura ohitura osasuntsuak sustatzeko egitasmoagazko konpromisoa berretsi du udalak

**Joseba Derteano** ATXONDO

Atxondoko Udalak eta Eskolako Ikasleen Guraso Elkarteak hitzarmen bat sinatu dute eskolan martxan den hamaiketako osasungarrien programa sendotzeko. Orain arte, udalak diru laguntza bidez babesten zuen ekimena. Hitzarmenaren bitartez, alde biek, eskolagaz batera, elikadura jasangarri eta hurbilekoaren aldeko konpromisoa indartu dute.

"Umetatik elikadura ohitura osasuntsua bultzatzea garrantzitsua dela uste dugu, eta hitzarmena beste pauso bat da konpromiso horretan", zehaztu du Eneritz Agirre Atxondoko



Egitasmoaren bultzatzaileak eguazteneko agerraldian.

alkateak. "Hurbileko produktuen kontsumoa, tokiko ekoizleekin lankidetzan, ingurugiroagazko errespetua eta berdintasuna ere bultzatzen dira egitasmo honeguz", nabarmendu du bere aldeetik Alex Azpirik, gurasoen elkarteeko eta Bertón Bertokoako kideak. Horrez gainera, "esker-rak" eman dizkie eskolako irakasleei eta zuzendaritzari: "Proiektu honetan ezinbesteko pieza dira". Arantzazu Barrutieta ikasketa buruak "umeen artean elikadura osasuntsua sustatzeko konpromisoa" berretsi du. Hamaiketako osasungarrien programa 2023an ipini zuten martxan, Bertón Bertoko mugimenduaren filosofian oinarrituta. Ikasleek bertako elikagai agroekologikoak jaten dituzte jolas-orduan ikasturte osoan zehar. Astelehenetan Belaze baserriko jogurta jaten dute; martitzen eta eguazten Patxikobaso baserriko ogi agroekologikoa, eta eguazten eta barikuetan Anbotopeko Den-dako fruta. Ekoizleentzat "pozgarria da umeei bertako produktu agroekologikoak eskaintzeko aukera izatea".



Jardunaldia eskolan egingo dute.

## Gurasoentzako saioa, irakurzaletasuna umeengan sustatzeko

**J.D.** ATXONDO

Atxondon *Irakurketa etxean, Nor-Nori-Nork* izeneko saioa antolatu dute gaurko. 16:30ean izango da, eskolako eraikin zaharrean. Mireia Delgadok dinamizatuko du eta gurasoei zuzenduta dago. Doako saioa da eta irakurketari buruzko gako eta hausnarketak partekatuko dituzte bertaratzen direnek. Guraso Elkartearen, udalaren eta udal liburutegiaren artean antolaturiko ekimena da.

# Mañariko pala eta pilota txapelketak laster hasiko dira

Artatzagan pilota klubaren eta Kafraga elkartearen artean antolaturiko txapelketak apirilaren 4an hasiko dira. Zortzina bikote ariko dira esku pilotan eta palan



Mañariko pilotalekuan jokatuko dira partiduak.

**J.D. MAÑARIA**

Mañariko pala eta pilota txapelketak laster hasiko dira Kafraga elkartearen eta Artatzagan pilota elkartearen antolatuta. Txapelketak binaka jokatuko dira modalitate bietan: eskuz eta palan. Zortzi bikote modalitate bakoitzeko. Deialdiak arrakasta izan du eta izen-ematearen data amaitu orduko plaza guztiak beteta daude.

Kanporaketak apirilaren 4an eta 5ean jokatuko dituzte. Sailkatzen direnek apirilaren 11n jokatuko dituzte finalerdiak. Ondoren, txapeldunak nortzuk diren jakiteko, apurtxo bat itxaron beharko da. Izan ere, finalak Albokanrolla ekimenaren barruan jokatuko dira, ekainaren 14an.

## Jaiak prestatzen hasteko lehen batzarra egingo dute Izurtzan

Bilera martxoaren 27an izango da, udalbatza aretoan, eta herriko talde eta eragile guztiak daude gonbidatuta



Jaietako ekintza bat den Gertufest jaialdiko irudia.

**J.D. IZURTZA**

Datorren astean lehenengo batzarra egingo dute, Izurtzan, iraileko jaiak prestatzen hasteko. Martxoaren 27an izango da, 18:30ean, udaletxeko udalbatza aretoan. Udalak herritarrak eta herriko talde eta elkarte guztiak

deitu ditu bilera horretara. Denen artean jaietako programa adosteko lehenengo pausoak ematea izango da helburua. Aurreko aldiako ekimenen balorazioa egingo dute eta beste ekintza batzuk antolatzeko ideiak jasoko dituzte.



# Okm: batzen gaituen distantzia

**anboto**  
kide

**BERRIA!**

## **BED 'S**

- Momentuko deskontuaren gainean %5eko deskontua.

### **EILEKE**

**Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea**

- %15eko deskontua saio solteetan.

### **EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

### **ETXEDREAMS**

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

### **GAU-TU**

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atseden sistemetan.

### **HITZ LIBURU-DENDA**

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

### **HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA**

- %15eko deskontua sarreran.

### **HONTZA MUSEOA**

- %50eko deskontua sarreran.

### **IURRETA KOPISTEGIA**

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

### **KEINU OPTOMETRIA ZENTROA**

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

### **KIROL ERROTA GIMNASIOA**

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

### **LANDAKO OPTIKA**

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

### **LA PERLA**

- %15eko deskontua sasolan jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

### **MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA**

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

### **NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA**

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

### **NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA**

- %5eko deskontua produktu guztietan.

### **OSASUN ETXEA**

- Zatoz Osasun Etxera eta ~~doako~~ **ebaluazio bat** egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

### **PSIKOLOGIA AMOREBIETA**

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

### **SOLOZABAL ALTZARIAK**

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeke aire-gozagarrietan izan ezik).

### **TABIRA BITXIDENDA**

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

### **URALDE HORTZ KLINIKA**

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

### **URKIOIL GASOLINDEGIA**

- Izurtzako eta Otxandiloko Urkiolil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

### **URRIKE LIBURU-DENDA**

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

### **URTXINTXA JOSTAILU DENDA**

- %5eko deskontua erosketen guztietan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

### **ZELAI ALAI**

- Udalekuetan %10eko deskontua.



**Atera etekina txartelari!**

**Egin zaitez  
Anbotokide:  
946 816 558**

Deitu eta  
eman izena!



**anboto**  
kide

Anbotokideen  
txokoa

## MARTXOKO ZOZKETAK



**Basa:** Basa take away jatetxeko  
6 Baoko kutxatxo.



**Pirritx eta Porrotx jaialdia,** maiatzak 3.  
2 sarrera bikoitz.



**Xiberu tabernan** bi gosari bikoitz.  
Zornotza.

**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

\*Zozketa hauetan parte hartzeko  
eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



lazo jaien hasierako argazkia.

## Aspaldiko jairik luzeenak izango dituzte aurten Traña-Matienan

Apirilaren 27an emango diete hasiera jaiei, Donien Atxa jasota. Jaiek maiatzaren 10era arte iraungo dute

**Maialen Zuazubiskar** ABADIÑO  
Aurtengo San Prudentzio jaiak ate joka daude. Hilabete pasatxo baino ez da falta Donien Atxa jaso eta Traña-Matienako jaiei hasiera emateko. Ohiturari jarraituta, aurten ere San Prudentzio bezperan emango diete hasiera jaiei, apirilaren 27an, 19:00etan. Urtero legez, bertako kuadrillek jasoko dute txopoa, eta Iluntze dantza taldeak ekitalditxo egingo du aurretik.

Behin jaiei hasiera emanda, Traña-Matienako auzotarrek aste bi izango dituzte festarako. Aspaldiko jairik luzeenak izango

dituzte aurretik. Maiatzaren 3an, zapatua, herritarrek mozorrorik irudimentsuenekin kalera irteko aukera izango dute. Egun horretan, herri bazkaria ere egingo dute. Jaietako bigarren asteburuan, maiatzaren 10ean, paella txapelketa eta Gazte Eguna egingo dituzte.

**MAIATZAREN 3AN  
MOZORRO EGUNA  
EGINGO DUTE, ETA  
10EAN PAELLA  
TXAPELKETA**

## Probalekuko eraginkortasun klimatikoa hobetuko dute

Mallabiko Udalak azaldu duenez, lanek 45.901 euroko aurrekontua dute eta aste bian egitea aurreikusten dute



Barne itxitura ipiniko dute probalekuaren alboko horman.

## Gerra zibilak Abadiñon izandako eragina aztergai

**Maialen Zuazubiskar** ABADIÑO  
Gerediaga Elkarteak, Abadiño Udalaren babesagaz, Espainiako gerra zibilak udalerrian sorturiko eragina aztertzen dabil. Gerediagatik azaldu dutenez, bilketa lana egin dute orain arte. Orain, bilketa lan hori amaitzeko, gerragaz edo gerraosteagaz loturiko informazioa duten herritarrei euren ekarpena egiteko deia egin diete. Informazio bilketarako lau hitzordu zehaztu dituzte: lehenengo biak Txanportan, martxoaren 26an 16:00etatik 20:00etara, eta martxoaren 28an 10:00etatik 14:00etara. Beste biak Errotan, apirilaren 4an 16:00etatik 20:00etara, eta apirilaren 5ean 10:00etatik 14:00etara.

## Trikipoteoa Mallabian, udaberriari ongi etorria egiteko

**Maialen Zuazubiskar** MALLABIA  
Etorri da udaberria. Atzo sartu ginen udaberrian, martxoak 20, eta honi ongi etorria emateko, trikipoteoa antolatu dute Mallabian. Zaparrada elkarteak antolatu du ekimena, eta gaur, barikua, izango da. 19:00etan hasiko da, Herriko tabernatik. Mallabitar guztiak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera.

**Maialen Zuazubiskar** MALLABIA  
Mallabiko frontoian dagoen probalekuan hainbat kirol jarduerak egiten da urtean zehar, eta instalazioak askotariko erabilerraz izaten ditu. Mallabiko Udaletik jakinarazi dutenez, probaleku barruko tenperatura ez da egokia izan bertan jarduerak behar den moduan egiteko, eta horri konponbidea eman gura diote. "Probaleku-frontoiko erabiltzaileentzat erosoagoa egitea gura dugu", azaldu dute. Ereduaren eraginkortasun klimatikoa hobetzeko asmoz, barne-itxitura bat ipiniko dute probalekuaren alboko horman, eta itxi egingo dituzte bertako aireztapen hutsuneak. Hartara, eraikinaren isolamentu termikoa hobetuko dute. Lan hauek 45.901 euroko aurrekontua dute eta aste bian egitea aurreikusten du udalak.

# Arrazakeriaren kontrako ekintza ugari Zaldibarren

Zaldibarko Jendeak taldeak arrazakeriaren eta faxismoaren kontrako elkarretaratzea egingo du, gaur, hilak 21, udaletxeko plazan. 18:00etan batuko dira. Elkarreak herriko gazte arrazalizatuen testigantzak jaso ditu argitalpen batean

## Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Gaurkoa, martxoak 21, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna da, eta



Zaldibarko Jendeak taldearen jai bat.

Zaldibarko Jendeak elkarteko kideek mobilizazioa antolatu dute aurreiritzi horiei eta orokorrean faxismoari aurre egiteko. 18:00etan txokolatada eta kartulinak margotzeko tailerra egingo dituzte umeentzat; gero, 18:30ean, elkarretaratzea. Udaletxeko plazan egingo dituzte ekintzok. Elkarreak Ikuspegiren datuak (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Immigrazio Behatokiaren estatistikak) gogoratu ditu errealitatearen berri emateko. "Gorrotodelitu xenofobo eta arrazistak EAEn erregistratutako gorrotodelituen % 64 dira, sexu joeragaitiko delituen oso gainerik (% 15)". Gai-

nera, delitu arrazistak "% 23 igo dira", adierazi du Zaldibarko Jendeak elkarteak.

## Argitalpen berria

Aipaturiko guztiez gainera, Zaldibarko Jendeak elkarteko kideak aurreiritzien kontrako lanketa egiten ibili dira era komunikatiboan. Izan ere, udalerriko gazte arrazalizatuei buruzko argitalpen monografikoa kale-ratu eta banatu dute oraintsu etxerik etxe. Bertan, gazteek gai hauen gaineko gogoeta egin dute: jatorri herrialdeak, migratzeko arrazoiak, egoera ekonomikoa, eskolako giroa, herriko eragileak eta etorkizuna.

## Udalekuetarako izen emateak hilaren 31tik aurrera Zaldibarren

### E.H. ZALDIBAR

Zaldibarko udalekuetan izena emateko epea martxoaren 31tik apirilaren 10era izango da. Lau astez eskainiko dituzte udalekuak, ekainaren 23tik uztailaren 18ra, 10:00etatik 14:00etara. Haurtzaindegia zerbitzua ere egongo da, 09:00etatik 10:00etara. Interesdunek inskripzio orria bete beharko dute, eta udaletxean aurkeztu.

## Zirku tailerra egingo dute lurretan, apirilaren 14tik 16ra

### A.B. IURRETA

Iurretan zirku tailerra egingo dute apirilaren 14tik 16ra. Ibaurretxe kultur etxean izango da eta talde bi sortuko dira, adinaren arabera: LH1etik 3ra bitartekoak 09:30etik 11:00etara ari-tuko dira, eta LH4tik 6ra bitartekoak 11:30etik 13:00era. Kultur etxean edo HAZen eman daiteke izena, martxoaren 24tik 28ra.

## Otxandioko III. Frontenis Txapelketa hasiko da gaur

### A.B. OTXANDIO

Otxandioko III. Frontenis Txapelketa jokatu dute asteburuan. Nobedade lez, txapelketa orokorragaz batera, nesken arteko norgehiagoka ere izango da aurten, lehenengoz. Guztira, 32 bikote lehiatuko dira martxoaren 21ean eta 22an jokatu diren partiduetan; 18 bikote herrikoak dira. Txapelketa oro-

korra zapatuan izango da, 08:00etan hasita, eta 24 bikote parte hartuko dute bertan, orain arteko parte hartzaile kopururik handiena. Partiduak 22 tantora edo 20 minutura (22ra heldu ezean, momentuko markagailua kontuan hartuko da) jokatu dira, tartean etenik egin barik, antolatzaileek azaldu dutenez. Nesken txapelketan zortzi bikote parte hartuko dute, eta lehen partidua barikuan izango dira, 18:00etan. Zapatuan finalerdiak eta finala jokatu dira.

## Martxoak 31 Durangoko bonbardaketak oroituz

Egitaraua ikusi



## Durangoko EAJk Urkullu omendu du, lehendakari lez egindako lanagaitik

Durangoko EAJk San Agustinen egin zuen ekitaldia. Mililitanteak, alderdiko kideak eta herritarrak batu ziren

M.Z. DURANGO

Barikuan, Durangoko EAJk omendua egin zion Iñigo Urkulluri, Euskadiko lehendakari modura hiru legegintzalditan egindako lanagaitik. Ekitaldia San Agustín Kultur Gunean egin zuten, eta

bertan, Urkulluk Euskadiren alde erakutsitako dedikazioa eta konpromisoa eskertzeko asmoz, arlo politiko eta enpresarialeko pertsona esanguratsuak batu ziren, baita militanteak eta herritarrak ere. Ekitaldian zehar, Bittor Etxe-

guren Durangoko EAJko presidentek eta Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak ere berba egin zuten. Omenaldiaren unerik gorena Kurutziagako Gurutzea emateko ekitaldia izan zen. Hunkituta, Urkulluk sari hori jaso eta bertaratuei berba batzuk zuzendu zizkien: "Aitorpen honek esker ona eta emozioa eragiten dizkit. Beti lan egin dut herri honi eta bere jendeari zerbitzatzeko konbentzimenduagaz, eta gaur hemen jaso dudan babes eta maitasun hau bihotzean eramango dut".



Etxeguren, Urkullu eta Elkoroiribe.



POLITIKAN

CARLOS GARCÍA  
PP

## Durangoko paradorea, Bizkaiko paradorea

Bizkaia da penintsula osoan Paradorerik gabeko lurralde bakarra. Euskadin, Argomazekoa dago Araban, Hondarribikoa dago Gipuzkoan, eta probintzia guztietan daude halakoak. Portugalen ere badago bat.

Horregatik, Durangorentzat oso gauza positiboa izango denez, Bizkaia osoarentzat den bezala, Senatuan proposatu dut Bizkaiko Paradorea gaur egun erabiltzen ez diren Durangoko eraikin historikoetako batean egitea.


Proposatu ditudan eraikinak hauek dira: San Agustín Ospitale Zaharra, Garai Jauregia, eta Pinondo Etxea. Horiek guztiak gaur egun gastu bat dira udalaren mantentze-lanei dagokienez, arriskuan ere badaude, eta, beraz, gure merkataritza eta ostalaritzarentzat onuragarria izango litzateke, Durangorentzat eta gure eskualdearentzat oso positiboa izango den kultur turismo mota batekin.

Apirilean Senatuan aztertuko da proposamena, eta gaitzetzeko alderdi politikoen laguntza izatea espero dut. Gainera, modurik onena izango da 1928an Gredosko lehen Paradorearen 100. urteurrena ospatzeko.

## DURANGALDEA ASTEON

### Elorriko Udalak ume bati martitzenean gertatutakoaz ohartarazi ditu familiak

ELORRIO Elorriko Udalak baieztatu duenez, martitzen arratsaldean udaltzaingoa eta Ertzaintza 23tik 30 urtera arteko gizonetako baten bila aritu ziren. 10 urteko neskatok batengana hurreratu eta beragaz joateko esan zion gizonetakoak. Umearen amak eman zuen abisua udaltzaingoa. "Ez dugu alarma sozialik piztu gura, baina prebentzio lana egitera deitzen ditugu herriko familiak. Herritarren artean saretzea eta elkar zaintza bultzatu gura ditugu", adierazi du Julene Lazkano Elorriko alkateak.



### Diasporako euskara ikasleen mezua ANBOTOn

DURANGALDEA Texas, New York, Los Angeles, Argentinako La Plata hiria, Portland, Washington, San Frantzisko... diasporako euskara ikasleek argi dute: euskara maite dute eta egundoko lana egiten dute. [anboto.org](http://anboto.org)-ra bidalitako bideoan euren bizipenak, motibazioak eta helburuak partekatu dituzte berripaper honetako irakurleekin.



### Kontseilu Sozialistak Israelen erasoak salatuko ditu

DURANGO Durangaldeko Kontseilu Sozialistak Israelen Palestinaren aurka egindako azken erasoak salatuko ditu bariku honetan. Izan ere, Tel Aviveko gobernuak Hamasegaz hitzartutako su etena apurtu du, eta azken orduetan eraso ugari egin du herritar palestinarren kontra. Kontseilu Sozialistak gertaturiko guztiak salatu, eta Israel seinalatuko du haren "izaera genozida" salatuz eta "palestinaren alde kaleak hartzeko". 19:00etan egingo dute elkarretaratzea, Durangoko udal plazan.

## GUTUNAK

### Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta  
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

**anboto**

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.  
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.  
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta, Miren Abasolo Txabarri eta Xabier Lazkano Baseta.  
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.  
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Irati Otadui Maiztegi.  
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.  
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



ZEIN DA EZBERDINA?








# MARGOTU

Margotu gurago duzun moduan.







# PAPIROFLEXIA



# ESAERA ZAHARRA

Bete laukiak dagokion letragaz behean dagoen alfabetoari jarraituta.







Mikel Lertxundi, museo aurrean.

# "Artistak ikuslea obra barrura sartzea bilatzen du"

**ERAKUSKETA** Mikel Lertxundi berriatuarraren 'Formatik Haratago' erakusketa ikusteko azken egunak dira; 50 urteko ibilbideaz gozatzeko aukera paregabea dago Durangoko Arte eta Historia museoan; martxoaren 30era arte egongo da ikusgai

**Aritz Maldonado** DURANGO

Mikel Lertxundiren *Formatik haratago* erakusketa Durangoko Arte eta Historia Museoan dago martxoaren 30era arte. Erakustaldia osatzeko, hainbat ekitaldi ere antolatu dute, tartean bisita gidatuak Lertxundigaz beragaz. Zapatuan, hilak 22, 13:00etan eskainiko du bisita gidatua, euskaraz; 12:00etan gaztelaniaz egingo du. Askotariko lanak daude erakusketan: eskulturak, olio tantak, argazkiak... 50 urteko jardunean batu eta garatu dituenak asko. "Azaletik

begiratuta, desberdin ikusi daitezke, baina, pentsatuz gero, sakonean guztiek dute lotura", argitu du artistak.

**Hamarkadetako lana batu duzu 'Formatik Haratago' erakusketarako. Gatx egin zaizu aukeraketa?**

**"JENDEARI ALDE ESPAZIALA IKUSARAZTEA IZAN DA ERRONKARIK HANDIENA"**

Gaia aukeratu genuen momentutik, nahiko argi neukan. Nire lana alde materialagaitik da ezaguna batez ere. Lehenengo liburua 80ko hamarkadan kale-ratu nuen, eta hor jada elementuak lantzen hasi nintzen. Erakusketako gaia aukeratu genuenean, erakusketa hiru elementu espazialen (haizea, ura eta sua) inguruan izango zela erabaki genuen. Aurretik, ez dut erakusketarik egin gai hau hartuta. Gero, nahiko erraza izan da aukeraketa. Erakusteko duzun espazioaren arabera ere molda-

tu behar da; ezin duzu gehiegi kargatu, ez hutsik utzi. Hiru elementu espazialekin lanak batu ditut erakusketarako.

Elementu espazialak gai lez hartuta egin dudan lehenengo erakusketa da. Baina hemen daudenetarik obra asko ez ditut lehenengoz erakusten. Berriak ere badaude, jakina. Elementu espazialen gai edo tematika hau hartutako lehenengoa da.

**Elementu espazialak, baina, oso presente egon dira zure obran.**

Bai, beti egon dira hor. Baina orain gai modura garrantzi handiagoa emateko aukera izan dut. Egia esan, materia eta elementuak beti landu izan ditut paraleluki.

**Erronka izan da erakusketa hau?**

Erakusketako lanak egitea ez da erronka izan; jendeari alde espazial hau zelan landu dudan ikusaraztea izan da erronkarik handiena. Hori da gaxena. Espazioak duen inportantzia materiagaz, edo lurragaz, orokorrean, duten beharrezana. Nik beharrez hori izan dut, alde hori inoiz baino argiago edo zehatzago agertzea.

**Erakusketak aste batzuk daramatza martxan. Zelako harrera izan du?**

Sorpresa ona hartu dut. Jendearen erantzuna, kopuru aldetik, oso ona izan da; bestalde, kontatu didatenagaitik, hobe izan da eurek jaso duten mezua. Asko harritu egin dira, eta harridura hori gauza positibo legez hartu dut. Bisitaria obra barrura sartu da, eta horixe da, hain zuzen ere, artistak gura duena, azaletik obra barrura sartzea. Obraren balioa hortxe dago, atzean.

**Zelakoa izan da elementu espazialak lurreko elementuekin uztartzea? Egurragaz, burdinagaz, harriagaz...**

Natura orokorrean ulertu ahal izateko, derrigorra da ulertzea materiak espazioa behar duela, eta berdin espazioak materia. Orduan, erakusketak elementu espazial horietatik haratago eramanez gura du bisitaria, giza-kiari sortzen zaion emozio eta alde poetiko hori ikusarazi gura dut. Elementuek ez dute forma

konkreturik, baina mezu poetiko horrek bilatzen dira, hala ere. Formak inportantzia du, erakargarritasuna hor dagoe-lako, lehenengo kolpe horretan; nire obrek forma dute, baina gutxi, materia bakoitzak bere forma edukitzea gura dut. Ezin da bilatu forma konkreturik, eta hortik gura dut bisitaria harago eramanez. Kasu honetan, guk oinak ditugun lurra forma eta materia ditu, baina gu, azkenean, gu bizi gaituen elementuak espazioan daude, arnasten dugun haizea, edaten dugun ura, edo behar dugun berotasunean. Hankak lurtean, baina burua espazioan dugu, eta hor sortzen diren sentsazio eta emozioen bilakaeren inguruan landu dut obra hau.

**Bisitetan ere idea horietan sakonduko duzu.**

Ahaztu egiten dugu elementuen beharrezana dugula zentzu guztietan, eta erakusketagaz hori ikusarazi gura dut. Elementuak fundamentalak dira gu bizitzeko, baita sentitzen duguna sentiarazteko ere. Derrigorrez behar ditugu bizitzeko. Nik naturara begira lantzen dut beti nire obra, eta hor badago ahalegin bat jendea naturari begira jartzeko. Azkenean, sentitzen dut naturatik kanpora bizi garela pertsona asko. Hori pentsatzeari bost minutu eskainiko bagenizkio, sikiera, beste modu batera biziko ginatke. Egia da, gailuen ondorioz eta, uhin desberdinez betea dugula bizia. Baina bizia ematen digutenak lurra eta espazioan dauden elementuak dira. Besteek entretenimenduak ematen dizkigute. Bizia materiak eta elementuek ematen dute; bai eman eta baita kendu ere. Naturaren balioa ikusten ez badugu, galduta egongo gara.

**Durangon bertan eskulturak ere badituzu. Zer hartu-eman duzu Durangogaz?**

Gure eskualdetik, Lea-Artibaitik, hurbilen dagoen herririk handiena da Durango. Horrez gainera, kultura mugimendua ere badu, eta horrek garrantzia du. Durangoko Azoka ere garrantzitsua da; orain urte asko, erakusketa bat egin nuen azokako hitzaldi aretoa zen gunean. Niretzat Durangaldeak gauza asko du; tartean, kultur ekitaldi asko. Gehiago balitu, hobe, baina badago mugimendua, eta Azoka da handiena.

**"DURANGO GARRANTZITSUA DA NIRETZAT, KULTURA MUGIMENDUA DUELAKO"**

# Filtroko gertakariak gogora ekarriko dituzte

**ANTZERKIA** La Dramática Errante konpainiak Uruguaiako Filtroko gertakariak lez ezagutzen direnak gogora ekarri ditu 'Filtro' antzezlanean; emanaldia domekan izango da, martxoak 23, 19:00etan, Durangoko San Agustin kulturgunean

A. M. DURANGO

*Filtro* La Dramática Errante konpainia bizkaitarraren nazioarteko lehenengo koprodukzioa da. Montevideoko Filtroko ospitalean 1994an gertatu zen sarraskia da antzezanaren abiapuntua; Lana Uruguaiako hiriburuan estreinatuta zuten iazko irailean, eta martxoan heldu da Euskal Herrira. Zazpi emanaldi egingo dituzte bertan; tartean, Durangoko San Agustin kulturgunean domeka honetan egingo dutena. La Dramática Errantek egin ohi duen lez, gertaera historiko bat berraztertuko du lan honetan ere, galdera berriak planteatzeko. 1994ko abuztuaren 24an, hiru etakide espainiaratzearen aurkako protestetan, Filtroko ospitale kanpoaldeko istiluetan polizia Fernando Morroni eta Roberto Facal uruguaitarak hil zituen. Gertakari horiek ardatz hartu eta urtebete baino gehiagoko ikerketa baten ondoren aurkeztu dute *Filtro*. Maria Goirizelaiak eta



'El Filtro'. GUSTAVO CASTAGNELLO

Ane Pikazak zuzendu dute lana, eta Marcos Valls, Agustin Urrutia, Camila Parard eta Luis Pazos aktore uruguaitarak dira protagonistak. Maria Goirizelaiak eta Ane Pikazak 2017an sortu zuten La Dramática Errante konpainia, eta Federico García

Lorcaren *Yerma* antzezanaren egokitzapenagaz hasi zuen ibilbidea. Altsasuko kasuan oinarrituriko *Altsasu* antzezlana izan zen ondorengo sorkuntza, eta gero heldu da *Filtro*. Urtarrilean *Adiorik ez* lana estreinatuta zuten, konpainiaren laugarrena.



Topaketako irabazleak.

## Bartolome Ertzillako Zeharka Flutek saria irabazi du

**MUSIKA** Talde durangarra Euskadiko Txirulen Topaketako irabazlea izan zen; Bilbon egin zuten topaketa

A. M. DURANGO

Durangoko Bartolome Ertzilla kontserbatorioko Zeharka Flute seikoteak Euskadiko Txirulen Topaketa irabazi du. Topaketan, Naroa Igarza, Ane Arneta, Irene Goiri, Uxue Zabala, Maite Molina (pianoa) eta Aitziber Elizaran (biolontxelo) musikariek parte hartu zuten, Alfredo Sanz irakaslearen zuzendaritzapean. Durangoko Udaletik ere meritu handia eman diote sariari; izan ere, Durangokoek Bilboko eta Gasteizko kontserbatorio profesionalek lehiatu behar izan zuten. "Harro egoteko

moduko emaitza da", esan dute. Bestalde, jardunaldiak bigarren ekitaldi garrantzitsu bat izan zuen. Topaketan, hamabost musika eskola eta kontserbatorioetako 120 musikari batu ziren, eta horiek Arriagaren, ETS taldearen eta Carlinhos Brownen lanak interpretatu zituzten; abesti horiek Mikel Piris irakasleak espreski moldatu zituen aurretik lehiaketarako.

Ekitaldia urte birik behin antolatzen da, zeharkako txirularen eta txirula-musikaren sustapena bultzatzeko helburuagaz. 2025eko topaketa Bilbon izan da.



GAI LIBREAN

GARAZI ARRIZABALAGA CABRERIZO DURANGOKO MUSEOA

## Isilaraziak XXII

Catharine MacKinnon estatubatuar legelariak eta aktibistak dio: "Isildutakoen isiltasuna isildutakoen ahotsekin betetzen da eta isiltasunaren egitatea ahanzturan erortzen da". Hau da, beharrezkoa da isilaraziei ahotse ematea, ahanzturan ez jausteko. Eta helburu horrekin antolatuta dugu apirilaren 5ean egingo dugun *Ahotsak* topaketa.

Orain dela pare bat urte elkarrizketa bat egin zidaten eta bertan museoetan feminismoak nola eragiten duen galdetu zidaten. Orduan ere azaldu nuen azken urteetako joera bati jarraituz emakume artisten inguruko erakusketak gero eta gehiago egiten ari direla eta ikusgai jartzen direla beraien burua eta lana. Hau guztia ondo dago, baina benetako feminismoa haratago doa. Nire ustez, museo batek egin beharko lukeena hau da: orain arte gizonena bakarrik izan den protagonismo hori zalantzan jartzea. Zergatik ez dago emakume artistarik museoetan? Non zeuden emakume artistak?

Existitu al ziren? Gaur egunera arte jaso dugun Artearen Historia hori zalantzan jarri behar dugu, ez baita Egia absolutu bat. Kontatu ez dizkiguten gauzak daude, eta horiek ezagutu behar ditugu.

Horregatik antolatu dugu topaketa hau, beste ahots batzuk entzuteko, ohiko perspektibatik urruntzeko eta

**"BEHARREZKOA DA ISILARAZIEI AHOTSA EMATEA, AHANZTURAN EZ JAUSTEKO"**

beste Egia batzuk ezagutzeko. Horretarako, lau emakume gonbidatu ditugu; Dorleta Ortiz de Elguea, Cristina Gutiérrez-Meurs, Isabel Mellén eta Eugenia Tenenbaum. Emakume hauek idazleak, artistak, artearen historialariak, irakasleak eta dibulgatzaileak dira. Idatzi dituzten liburuak euskarri bezala erabilita, emakumeak Artearen Historian eta orokorrean Historian izan duen paperari buruz hitz egingo dugu. Orain arte isilaraziak izan direnei ahotse emango diegu, ahalik eta historiarik errealea ezagutzeko.

Lehenengo pauso bat besterik ez da hau, eta interesgarria izango litzateke topaketa hauekin urteetan zehar jarraitzea eta emakumeena ez ezik, isilaraziak izan diren beste ahots batzuk ere entzutea, hala nola LGTBIQ+ komunitatearena, arrazializatuena, diskriminatuena, elbarrituena, gaixoena, eta abar. Gizon zuri, heteropatriarkalaren ahotse askotan entzun dugu; besteok ere badugu zer esan.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

## BARIKUA 21

**ATXONDO** Jardunaldia

'Irakurketa Etxean. Nor-Nori-Nork' (Mireia Delgado). Gurasoentzat. *Eskolako eraikin zaharrea, 16:30etan.*

**BERRIZ** Antzerkia

'Muna' (Ganso&Cia). *Kultur Etxean, 17:00etan.*

**DURANGO** Erakusketa

'Formatik haratago' (Mikel Lertxundi). *Arte eta Historia Museoa, martxoaren 30era bitartean.*

**DURANGO** Erakusketa

'Dismorphe' (Naiara Morales). *Ezkurdi aretoa, martxoaren 24ra arte.*

**DURANGO** Kontzertua

Zeharka Flute. *Otamotzena auzogunean, 19:00etan.*

**DURANGO** Berbaldia

Emakumeak gerran. 'Emakume Abertzale Batza' lanaren aurkezpena, egileek aurkeztua: Gurutze Ezkurdia Arteaga, Karmele Pérez Urza eta Begoña Bilbao. Maria Gorosarri Gonzalezek 'Emakumea gudan eta gudaostean' ponentzia aurkeztuko du. *Kurutze Santu museoan, 19:00etan.*

**IURRETA** Kontzertua

The Half Nelsons. *Korta tabernan, 20:00etan.*

**ZORNOTZA** Kontzertua

Noran + Supercremalleras. *Zelaietako kontzertu gelan, 20:30etan.*

**ZORNOTZA** Erakusketa

Itsasontsi modelismoa. *Zelaietan, martxoaren 28ra arte.*

## ZAPATUA 22

**ABADIÑO** Ikastaroa

Autodefentsa ikastaroa (12-18 urte). *Txanportan, 10:30etik 14:30era.*

**BERRIZ** Ipuinak

'Zuhaitz baten azpian' (Sara Bikandi). *Kultur etxean, 12:15ean.*

**DURANGO** Kontzertua

Bartolome Ertzilla Orkestra Sinfonikoa. *San Frantsizko elizan, 19:00etan.*

**IURRETA** Kontzertua

Arnau Godergh. *Korta tabernan, 20:30ean.*

**IURRETA** Irteera

Legutiora bizikleta irteera. *Iurretan, 09:00etan.*

**ZORNOTZA** Antzerkia

'Arizona' (Txalo Produzioak). *Zornotza Aretoa, 20:00etan.*

## DOMEKA 23

**DURANGO** Antzerkia

'Filtro' (Uruguaiako Sala Verdi eta La Dramática Errante). *San Agustín kulturugunean, 19:00etan.*

**IURRETA** Irteera

Lekoiz-Markina bizikleta irteera. *Iurretan, 09:00etan.*

**OTXANDIO** Ibilbide zirkularra

Orisolera ibilaldia Durangoko Alpino Tabira mendi taldeagaz (Berbalagun). Izena emateko: 639 400 786. *Oletako Guardetxearen aparkalekuan, 09:00etan.*

**ZALDIBAR** Txistulari Eguna

69. Durangaldeko Txistulari Eguna. Kalejira, 09:30ean. Gero, kontzertua. *Udaletxe aurreko plazan, 12:30ean (euria bada, frontoian).*

## ASTELEHENA 24

**ZORNOTZA** Berbaldia

'Etxebitza eta gazteak' (18-34 urte). *Zelaieta zentroan, 18:30etan.*

## MARTITZENA 25

**DURANGO** Erakusketa

Saibigainen egin diren prospekzio lanetan aurkitutako elementuen erakusketa. Gerediaga Elkarte. *Kurutzesantu Museoa, martxoaren 30era bitartean.*

## EGUAZTENA 26

**ATXONDO** Berbaldia

'El manifiesto de las mujeres viejas' liburuari buruzko solasaldia (Hizlariak: Mari Luz Esteban idazlea eta Mireia Delgado). *Udal liburutegian, 17:00etan.*

**DURANGO** Bideoa

'Bonbardaketaren aztarnak' bideoaren proiektzioa. *Kurutzesantu museoan, 09:30etik 12:30era.*

**DURANGO** Berbaldia

'Euskaraldia: ekimen bat baino gehiago' (Hizlaria: Kike Amonarriz). *Arte eta Historia Museoa, 18:30etan.*

## EGUENA 27

**ABADIÑO** Antzerkia

'Lámalo X' (Neuke Produzioak). *Errota kultur etxean, 19:00etan.*

**DURANGO** Solasaldia

LAB Egunak. *Bizenta Mogel liburutegian, 18:00etan.*

**ELORRIO** Bisita Gidatua

Elorrioko gaitzadak eta bestelako bitxikeria historikoak ezagutzeko bisita, Rikardo Ajuriak gidatuta (Berbalagun). Izena emateko: 639 400 786. *Plazan, 10:00etan.*

**ZALDIBAR** Jardunaldiak

IX. Mendi jardunaldiak. 'Erro' film laburraren emanaldia. Amaia Lejarreta eta Janire Etxaide dantzaria egongo dira. *Liburutegi zaharrea, 19:00etan.*

## BARIKUA 28

**DURANGO** Kontzertua

Kolpeka + Agur. *Rugby tabernan, 22:30ean.*

**IURRETA** Ipuinak

'Haizeak daramana eta dakarrena' (Saioa Aizpurua ipuin kontalaria). *Herri bibliotekan, 17:30ean (3-5 urte) eta 18:00etan (6 urtetik gora).*

**IURRETA** Helduentzako ipuinak

'Hemendik eta handik hartutako ipuinak' (Saioa Aizpurua ipuin kontalaria). *Herri bibliotekan, 19:00etan.*

**ZORNOTZA** Dantza

'Lana' (Osa-Mujika konpainia). *Zornotza Aretoa, 20:00etan.*

**ZORNOTZA** Desfilea

Urritxe Golden Fest (Insitutuko ikasleen desfilea). *Zornotza Aretoa, 17:30ean 19:30ean.*



BUTACA ZERO

## ZINEMA

**BERRIZ**

## KULTUR ETXEAN

**María Calas**  
Domeka 23: 19:00.

**Tyger Stripes**  
Eguaztena 26: 18:30.

**DURANGO**

## ZUGAZA ZINEMA

**Los Aitas**

Barikua 21: 18:00, 20:30.  
Zapatua 22: 17:15, 19:00, 21:30.  
Domeka 23: 17:00, 19:30.  
Astelena 24: 18:00, 20:15.  
Martitzena 25: 18:00, 20:15.  
Eguaztena 26: 19:00.

**Blancanieves**

Barikua 21: 18:00, 20:30.  
Zapatua 22: 17:15, 19:00, 21:30.  
Domeka 23: 17:00, 19:30.  
Astelena 24: 18:00, 20:15.  
Martitzena 25: 18:00, 20:15.  
Eguaztena 26: 19:00.

**8**

Barikua 21: 18:00, 20:30.  
Zapatua 22: 19:00, 21:30.  
Domeka 23: 17:00, 19:30.  
Astelena 24: 17:45, 20:15.  
Martitzena 25: 17:45, 20:15.

**Rusalka (opera)**

Eguaztena 26: 19:00.

**Durango emakumeen kartzela: Herri baten memoria**  
Eguena 27: 19:00.

**ELORRIO**

## ARRIOLA ANTZOKIA

**La semilla de la higuera sagrada**

Zapatua 22: 20:00.  
Domeka 23: 20:00.  
Astelena 24: 20:00.

**Mufasa: El rey león**  
Domeka 23: 17:00.

**ZORNOTZA**

## ZORNOTZA ARETOA

**Lee Miller**

Domeka 23: 20:00.  
Astelena 24: 20:15.

**Looney Tunes: Lurrak eztanda egin zuen eguna**  
Domeka 23: 17:00.

**Adiós, salvajes (JBGA)**  
Martitzena 25: 19:00.



# Peio gogoratu eta ELA gizarteratzeko asteburua

**ELKARTASUNA** ELA gaixotasuna gizartean ikusarazteko asmoz, Otxandioko Koikili Lagunarteak Peio Magunazelaia Memoriala antolatu du astebururako. Magunazelaia lagunarteko sortzaileetarikoa izan zen eta ELA gaixotasuna pairatu zuen



Koikili Lagunartearen 10. urteurreneko jaiko irudia, 2018an. Peio Magunazelaia omendu zuten.

## Joseba Derteano OTXANDIO

Otxandioko Koikili Lagunarteak hainbat ekintza antolatu du asteburuan ELA Alboko Esklerosi Amiotrofikoa gaixotasuna gizarteratzeko. Horregaz batera, lagunartearen sortzaileetarikoa izan zen Peio Magunazelaia gogoratutako dute. Hain zuzen ere, Magunazelaia ELA gaixotasuna pairatu zuen urte askoan.

Azken urteetan, kirola aitzakia hartuta, Koikili Lagunarteak hainbat ekintza antolatu du zenbait gaixotasun gizarteratzeko. "Lagunartean arlo sozialean eragitea garrantzitsua iruditzen zaigu", azaldu du lagunarteko kidea den Javier Lertxundik. Oraingo hau, baina, desberdina izango da. Ekintza konkretu bat barik asteburu osoko programa osatu dute, eta jarraipen bat eman gura diote. "Ahal bada, urtero antolatzea gustatuko litzaiguke, edo urte birik behin", adierazi du Lertxundik.

Ekimenari Peio Magunazelaia Memoriala izena ipini diote, eta, hain zuzen ere, lagunartearen sortzaileetarikoa izan zenak pairatutako gaixotasuna gizarteratzeko mahai-inguru batez ekingo diote egitarauari, zapa-tuan. Adela federazioko mediku profesionalak eta gaixotasuna modu batera edo bestera sufritu duten Otxandioko familiek parte hartuko dute bertan. Itxaso Quintana aktoreak gidatuko du mahai-ingurua.

## Vulcano vs Athletic Club

Domeka goizean futbolaren inguruko haur jolasak egongo dira Zelaieta futbol zelaietan. Ekimena Julen Axpe esatariak dinamizatu du. Ondoren, Otxandioko Vulcano eta Athletic Clubeko beteranoez lagunarteko partidua jokatu dute. Koikili Lertxundi izango da jokalarietariko bat. Besteak beste, Beñat Etxebarria, Markel Susaeta eta Raul Garcia jokalariek joatea espero dute. Partiduan zehar zozketak egongo dira: Athleticen kamiseta, memorialerako beren-beregi egindako kamiseta, baloi bat...

Eguerdian futbol zelaitik plaza nagusira aldatuko da jaia. Bertan, babarrunak sakramentuekin edo txingarretan egindako Eusko Labeleko pintxoak (oilaskoa eta txerrikiak) dastatzeko aukera egongo da. Otxandioko Urbiribil dultzainero taldeak eta Arrasateko Sanbamaña batukada taldeak girotuko dute bazkalordua.

Asteburuko ekimenagaz bateriko dirua gastuak estaltzeko erabiliko dute. Irabazirik balego, Adela federazioen elkartearentzat izango da, antolatzaileen esanetan.

**"BETERANOEN PARTIDUAN ZOZKETAK EGONGO DIRA: ATHLETICEN KAMISETA, MEMORIALEKOA..."**

## "Asko egin zuen Lagunartea sortzeko"

Peio Magunazelaia (Otxandio, 1964-2018) pertsona ezaguna eta maitatua izan zen herrian. Bere bizitza ostalaritzari lotuta egon zen. Haitz tabernako jabea eta tabernaria izan zen makina bat urtez. "Jendeagaz erraz egiten zituen hartu-emanak, eta oso pertsona eskuzabala zen", gogoratu du Javier Lertxundik.

Peio Koikili Lertxundiren laguna zen, hartu-eman estua zuten. Sarritan joaten zen bere partidua ikustera, bai herriko Zelaieta zelaira, Koikili Vulcano taldean zebileanean, eta bai San Mamesera, Athletic klubera batu zenean. "Lan handia egin zuen" Lagunartea sortzeko, dio Lertxundik. Haitz taberna lagunarteko egoitza eta



Javier Lertxundi, Peio Magunazelaia eta Koikili, urteurren ekitaldian.

Koikiliren partidua ikusteko bilgune bihurtu zen, horman eskegita zuen Athleticen armarrira lekuko.

2018. urtean, Koikili Lagunarteak 10 urte egin

zituenean, Peio omendu zuten, urteetan egindako lanaren esker onez. Ordurako, gurgildun aulkian zegoen ELA gaixotasunagatik, eta handik hile gutxira hil zen.

## EGITARUA

Azken urteetan, Koikili Lagunarteak hainbat ekimen antolatu du gaixotasunak gizarteratzeko eta haien bozgorailu izateko. Asteburuko ekintzak marko horretan kokatzen dira. Aurrera begira, urteroko hitzordu bihurtzea da lagunartearen nahia.

### MARTXOAK 22

- **18:00** ELAri buruzko mahai-ingurua, Otxandiko kultur etxean. ADELA mediku taldeko profesionalak eta Otxandioko familietako kideak. Saioa Itxaso Quintanak gidatuko du.

### MARTXOAK 23

- **11:00** Futbolaren inguruko haur jolasak, Zelaieta futbol zelaietan. Julen Axpek dinamizatuko ditu.
- **12:00** Beteranoen arteko partidua: Vulcano K.E. / Athletic Club
- **14:00** Jan-edana, Otxandioko Plaza Nagusian. Babarrunak sakramentuekin eta Eusko Labeleko pintxoak. Txartelak tokian bertan erosi daitezke, 2,5 euroan. Otxandioko Urbiribil dultzainero taldeak eta Arrasateko Sanbamaña batukada taldeak girotuko dute.
- **16:00** Jaiak Otxandioko kaleetan zehar jarraituko du.

# Mendia erdigune izango da Zaldibarko jardunaldietan

**MENDIA** Film laburren emanaldiak eta berbaldiak antolatu dituzte Zaldibarko mendi jardunaldien barruan. 'Erro' film laburraren proiektioagaz hasiko dute egitaraua, martxoaren 27an. Oihana Azkorbebeitiak berbaldia emango du apirilaren 7an

**Joseba Derteano** ZALDIBAR

Zaldibarko mendi jardunaldiek 9. aldia beteko dute aurten, eta askotariko emanaldi eta berbaldiek osatzen dute egitaraua. Lehenengo hiru ekimenak liburutegi zaharrean dira. Hasteko, martxoaren 27an, 19:00etan, *Erro* film laburra emango dute. Amaia Lejarreta artista durangarrak zuzenduriko lehen ikus-entzuzkoak da, *body paint*-a eta Janire Etxaberen dantza bertikala uztartzen dituenak. Biak izango dira emanaldian.

Apirilaren 3an, 18:30ean, Mendi Film jaialdiko lau film proiektatu dituzte: *Haize lerroak*, *The Ice Builders*, *Andrea*, *an unpaved route* eta *Zazpi*. Azken honek euskarazko filmik onenaren saria irabazi zuen iaz.

Apirilaren 7an, 18:00etan, sortu berria den Durangaldeko Kopa aurkeztuko dute, eskualdeko zortzi mendi lasterketek osatzen dutena. Ondoren, 18:30ean, Oihana Azkorbebeitia korrikalari



'Erro' film laburreko Janire Etxabe, Amaia Lejarreta eta Jon Mendizabal. ERRO

abadiñarrak berbaldia emango du. Bere esperientziatik, emakumeak mendi lasterketen munduan izandako garapena izango du berbagai.

Azkenik, apirilaren 10ean, 18:30ean, Mikel Perez irundarrak

10 urtez munduan zehar bizitakoak kontatuko ditu. Europako, Asiako, Afrikako eta Ozeaniako hamaika kultura ezagutu zuen hamarkada bat iraun zuen abenturan. Azken ekimen hau Zaldibarko liburutegian izango da.



Tabirako Baqueko Paule Basozabal baloiarekin ligako partidu batean. LUIS ITURRIOZ

## Zornotzak eta Tabirakok derbia jokatu dute domekan

**SASKIBALOIA** Zornotza STk lau porrot daramatza segidan. Tabirakok jarraipena eman gura dio bolada onari

**J.D. ZORNOTZA**

Zornotza Saskibaloi Taldea eta Tabirako Baque sailkapenean zortzina garaipenagaz berdinduta zeuden orain hilabete. Harrezkero, lehenengok lau porrot kateatu dituzte eta durangarrek hiru partidu irabazi dituzte. Beraz, Tabirako Baque joko bolada hobean helduko da domekan 13:00etan Zornotzako Ixerbekoa kiroldegian jokatu duten derbira.

Zornotzak bolada txarrari amaiera emateko behar du garaipena, eta, bidez batez, errebantxa hartzeko. Izan ere, lehe-

nengo itzuliko derbian Tabirako Baque nagusitu zen, partidu estu batean: 55-49.

Talde biak defentsa gotorrekoak dira eta ez dirudi puntu askoko derbia izango denik. Tabirako punturik gutxien jaso duen hirugarren taldea da, eta Zornotza seigarrena.

Liga amaitzeko bost jardunaldiren faltan, talde biak sailkapenaren erdian daude, eta, posturen bat gorabehera, hortxe amaituko dute denboraldia. Zoritxarrez, urrun dituzte lehenengo postuak, baina baita jaitsierakoak ere, zorionez.



## JOKALDIA

**GOTZON GOMEZ BARRENETXEA** ERRUGBIA

## Ziklo aldaketa

Amaitu berri den sei nazioetako txapelketak ipar hemisferioko errugbian ziklo aldaketa gertatzen ari dela erakutsi du. Hasteko, txapelkun berria dugu, Frantzia. Baina azter ditzagun izenburuaren arrazoak.

Irlandaren ereduak dituen ahuleziak agerian utzi ditu, batez ere Frantziaren aurkako partidak. Aitortu beharra dago, Hego Afrikako eredu hartuta Andy Farrellek talde indartsua eratu duela azken lau urte hauetan. Munduko talderik onena izatea lortu arte. Tarte horretan hiru garaipen lortu zituen All Blacks en aurrean, eta Sei Nazioetako irabazlea izan zen 2023. eta 2024. urteetan. Baina Johnny Sextoren erretiroak zein jokalarik beterrano batzuen errelebo faltak Frantziak gainetik pasatzea ekarri du edizio honetan.

Frantziaren kasuan, aspaldiko partez belaunaldi itzela du. Goi mailako 40 jokalarik edo gehiago ditu. Munduko jokalaririk onena, Antoine Dupont, Ramos eta Bielle Biarrey izar berria, baina ia bi urte behar

izan ditu etxean jokatu zuten Munduko Txapelketako porrot handia gaintzeko. Kale egin zuten mimos prestaturako txapelketa hartan, eta burua ateratzea kostata lortu badute ere, hurrengo urteetan Frantzia izango da garaitu beharreko taldea.

Italia dugu, nire ustez, hurbiletik jarraitu beharreko taldea. Azken hiru urteetan asko hobetu du bere jokoa. Dagoeneko jokalarik batzuk elitean ditu Europako klub garrantzitsuenetan jokatu, adibidez Ange Capuozzo Stade Toulousain handian; gainera, beheko mailetan garaipen garrantzitsuak lortu dituzte azken urte hauetan. Galesen aurka garaipena lortu dute, eta Frantziak aise garaitu zuen arren, Irlanda, Ingalaterra eta Eskoziaren aurka partidu onak jokatu ditu.

Eskoziak ere itxura ona du, baina ez du lortzen beraien jokoan ezandarik egitea. Partidu onak jokatu dituen arren, urte batzuk daramatza goia jo barik, potentziala duela uste dut, baina... agian XV lehiakorra

du, baina gero aldaketek ez dute maila ematen, eta askotan bigarren zatian taldeak kale egiten du.

Ingalaterrak jokatzeko modua aldatzen ez badu jai dauka, behintzat hori da nik uste dudana. Edizio honetan Frantzia garaitzea lortu duen talde bakarra izan den arren, ematen du eskuko freno jarrita jokatu duela, sekula ez du jokorearen ardura hartzen, ez du eskemarik, hobe esanda badu eskema, aurkariaren hutsigitei itxarotea eta hortik etekina ateratzea. Steve Borthwickek zuzentzen duen taldeak joko zikoitza eta aspergarria erakusten du. Entrenatzailearen sistemaren menpean daude.

Amaitzeko, Gales daukagu. Ez dira garai onenak herensugearen XVerako, Warren Gatland entrenatzaileak aldatu behar izan dute emaitza txarrak ikusita, hau da, partidu guztiak galdu dituzte zurezko koilara eskuratuz. Trantsizio sasoian daude, eta urte batzuk beharko dituzte egoerari buelta emateko.

## KOMIKIA UNAI GAZTELUMENDI

**BERE  
BURUA  
JAN ZUEN  
PLANETA**



## GUARDIAKO BOTIKAK

**MARTXOAK 21, BARIKUA**

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

**MARTXOAK 22, ZAPATUE**

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

**MARTXOAK 23, DOMEKA**

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

**MARTXOAK 24, ASTELEHENA**

09:00-09:00

Irigoiñ, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

**MARTXOAK 25, MARTITZENA**

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

**MARTXOAK 26, EGUAZTENA**

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

**MARTXOAK 27, EGUENA**

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

**24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.**22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: [www.anboto.org/botikak](http://www.anboto.org/botikak)

## ZORION AGURRAK



IURRETA

**Gaizka**

Zorionak, Gaizka, etxeko guztien partez (2 eta 4 hankakuek). Urte askotarako! Mosu handi bat eta jarraitu hain jatorra izeten. Asko maitte zaittugu, gazte!



BERRIZ


**Udane, Izar eta Ibaia Arizaga**

Zorionak, hirukote, familia osoaren partez. Eskerrik asko ematen dozuen poztasunagatik. Maite zaituztegu. Muxutxu pila.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
[gozatudurango@gmail.com](mailto:gozatudurango@gmail.com)  
☎ 661 40 14 00  
f Gozatu Gozategia  
@ gozatugozategia

**ZORIONTEKO  
HIRU BIDE**Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta [Anboto.org/zorionagurrak](http://Anboto.org/zorionagurrak) helbidean sartu. Mezua bidali [zorionagurrak@anboto.org](mailto:zorionagurrak@anboto.org) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua. Etorri zaitzez Anbotoren ordezkariara edo deitu 946 232 523 telefonora.**Zorionak Arantza eta Martin** (1015.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

## OROIGARRIA

**Ez zaittugu inoiz ahaztuko, Ane**

Begiak mallkoz beteta  
izan ez arren umea  
Horrela utzi gaituzu  
guztiz hautsita barnea  
Pertsona emana, alala,  
eskuzabala, xumea...  
Bere irriarekin pozten  
zuen ingurunea  
Borrokalaria sutua  
moldebako emakumea  
Natura, euskera, familia  
lagunak: Indargunea  
Sinistu ezinda hekdu da  
agur esateko umea  
Ordezkaezina izango da  
utzi duzun hutsunea

**Smurfit Westrock**  
Central Forestal

**+55 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAITZEN

**Smurfit Westrock**  
Nervión

# Oraindik ez zara ANBOToko whatsapp taldeko kide?

Durungaldeko azken  
albisteak jaso gura  
badituzu batu Anbotoko  
whatsapp kanalera



**Eskaneatu  
QR kodea**

\* Izan zaitez berriemaile ere.  
Bidali zure argazki eta bideoak





LAU-HORTZA

MARKEL ONAINDIA  
TXABARRI

## Mikel Sopelanaren vespa

1969ko Aberri Egunaren bezperan, soldaduskatik ospa egin zuen Mikel Sopelana gazte iurretarrak. Inor konturatu barik eskapatu zen Burgoseko kuarteletik, eta kanpoaldean konpintxeren batek lagatako motorra zuen zain. Arrankatu, begirada aurrera bota eta oineztua bezain bizkor etxerako bidea hartu zuen Mikelek. Askatasun haizeak lagundurik zihonan, aurpegian bere ohiko irribarre handia zuela. Lasterrera herrian agertu zen, ospakizunetarako eta borrokarako prest. Eskapada hori gogor ordainarazi zioten gero, egun batzuetarako atxilotu egin baitzuten. Baina, esango nuke Mikel ez zela damutu. Ederto disfrutatu zuen Aberri Egunaz.

Gerora, Mikelek makina bat biaje errebelde egin zuen bere vesparekin. Kofradien asanbladetara joango zen, Gregorio Gorroño, Adolfo Abasolo eta abarrek egoteko; Julen Kaltzada ikastolen batzarretara lagundu zuen; Rosa Mari Artza Herri Gaztediko topaketetara eraman zuen... Herrigintzako kideak bakarrik ez, lagunak eta Gaztañetzako nobia ere jesarri ei ziren vesparen atzeko partean, gidariari ondo helduta. Bizia zen Mikel.

Urtebete da, iazko Aberri Egunerako gutxi falta zela, Mikel Sopelana Basauri joan zitzaigunetik. Oraindik ere gatx egin da sinestea, bere hutsunea hain baita handia. Orain ere biajean imajinatzen dut, irribarretsu, askatasun haizeak lagundurik.

AKUILUA

# "Berrizko dantzaririk onena izan naizela esaten didate"

HILARIO ALKORTA GUENETXEA JUBILATUA

Sasoi onean eta pozarren dago Hilario Alkorta, bere 100. urtegunean. Axpeko txokoan bazkaria prestatu zioten mendeurrena behar den moduan ospatzeko

Aitziber Basauri BERRIZ

Bere gaztetako denborak ezagututa, gaur egungoa *gloria* dela dio Hilario Azkaratek. Mugikorra jo eta jo dauka zorion mezuak jasotzen. 100 urte egin ditu eta asko du ospatzeko. Axpeko txokoan bildotsa laban kozinatu diote, eta pastela ere egin diote, kandlei putz egin eta gero jateko. Zorionak, Hilario, eta urte askotarako!

**Ehun urte egin dituzu gaur (martxoaren 18an egin zen elkarrizketa). Zer behar da ehun urte horrela ospatzeko?**

Ez dakit. Nik neuk klase askotako lanak egin ditut. 33 urte txofer egin ditut, horietatik 29 Mañarian, harrobian. Behin ia istripua izan nuen. Makina zikindu egiten zenez, garbitzera sartu nintzen barrura eta batek martxan ipini zuen. Eskerrak etxekoandrea konturatu egin zela eta gelditzeko agindua eman zuela. Baserrian ere behar asko egin dut. Belar ebagiten korainagaz, ganaduari azpiak ataratzan, iratan Urrutzura idiekin... 13 urtegaz kriadu joan nintzen San Faustora. 19 urtegaz eskolan hasi nintzen, soldadu joateko apur bat ikasi behar zen eta. *Sumar-restar* eta horrelakoak ikasten genituen. Auzoko mu-



Hilario Alkorta Axpeko txokoan bere urtegunean.

tiko batzuk Sarriako baserri batera joaten ginen ikastera, neguan. Etxean beharrik ez genuenean.

**Urtegun berezi hau behar den moduan ospatuko duzu?**

Lagun artean ospatuko dut, baita seme-alabekin ere, eta zapatuan lehengusuekin.

**Familia zabala duzu urtegunean euren ospatzeko.**

Lau loba eta sei biloba ditut.

**Dantzaria izandakoa ere bazara.**

Bai, plaza mutila izan naiz. Berrizko dantzaririk onena izan nintzela zioten, oraindino ere esaten didate hori. Berrizko Nagusien taldekoa izan naiz, eta

jada jubilatuta —1975etik 1983ra bitartean— 375 irteera egin genituen. Frantziara joaten ginen asko Dantzari Dantza egitera. Ordaindu egiten ziguten. Gainera, gaztetan Matilde arrebaz dantza *sueltoan* hainbat sari lortu nuen; fenomenoaren zereba. Bilboko txapelketa batean lehenengo geratu ginen, 22 bikotetik. Etxean gordeta dut dantzari jantzia. 83 urteaz, Garain Aurrekua dantzatu nuen. **Beharra gogotik egindakoa zara, baina atsedean hartzeko tarteren bat ere izango zenuen.**

Laneko istripu batean atzamarrak galdu nuen eta bajaran hilabete pasatu nuen. Beste behin, hila-beteko oporrak hartu nituen Ameriketara joateko, 1975ean. Izeko bisitatzerak joan nintzen Idahora. Beharrik egin barik egon naizen momentu bakarrak izan dira.

**Momentu gogorak bizitzea ere tokatu zaizu. Gerra zibila zelarik gogoratzen duzu?**

Durangoko bonbardaketako hegazkinen zarata gogoratzen dut. Soloan nenbilen eta hegazkinetatik tiroak bota zizkidaten. Zanga batean sartu nintzen, tiroak amaitu arte.

**Ohitura on bat duzue eguaztenetan.**

Eguaztenetan Traña-Matienako Bodeguillara joaten gara ogitar-tekoa jatera.

**Mugikorrera deitu dizute eta ondo komunikatuta zaudela ematen du.**

Mugikor honek sei urte ditu, baina ez dabil oso ondo. Laster amaituko zaio bateria.



Ikusi bideoa



**SAN ROKE BARRIA**

## Bizimodu berri bat Durangon.

2. Fasea eraikitzen hasi gara.

Zure hitzordua eskatu:  
**946 462 041**  
sukia.com



Zure etxean zaudete. Estás en tu casa